

IZENAK ETA ADITZAK

Oiloa ala arrautza?

Lagun batek zera esan zion beste bati, adarra jo nahian:

–Zer izan zen lehenago, oiloa ala arrautza?

–Oiloa, jakina! –erantzun zuen besteak.

–Ba, oker zaude. Oiloak existitu baino askoz ere lehenago baziren arrautzak... dinosauroenak baina! Kar, kar, kar...

Arrazoi zuen. Aurrerantzean badakizue zer erantzun galdera hori egiten dizuenari!

1. **IZENAK ETA ADITZAK.** Ba al dakizu hauetatik zein hitz diren izenak, eta zein, aditzak?

IZENAK	ADITZAK

lagun esan erantzun
arrautza galdera
egiten zaude adarra
olioa existitu
dinosaurioa

2. **IZEN MOTAK.** Jakingo al zenuke izen hauek honelako taula batean sailkatzen?

IZEN BEREZIAK	IZEN ARRUNTAK

Paris abeslaria Izaro
Huntza Joseba hiria
osaba Kantauri mendia
Txindoki zaldia itxasoa

3. **IZEN ARRUNTAK ETA BEREZIAK.** Lotu izen arruntak eta bereziak gezi baten bidez.

☐ uhartea	☐ Victoria Eugenia
☐ musika-taldea	☐ Agustin Ibarrola
☐ aldizkaria	☐ Guggenheim
☐ antzokia	☐ Gabon
☐ museoa	☐ Richard Oribe
☐ margolaria	☐ Santa Klara
☐ gaua	☐ Hitza
☐ kirolaria	☐ Huntza

4. **TESTUA BERRIDATZI.** Kontuan izan maiuskulak eta minuskulak berrikusi beharko dituzula.

gaur, ez da maitane eskolara etorri. Batzuk diote parisera joan dela oporretara axun, juanjo eta bere Anaia perurekin. Egia esan, Sendagilearengana joan da, eta Nik banekien...baina ez dut ezer esan. gros auzoko anbulategian egon da eta martinak, Sendagileak, lasai egoteko esan dio. hankak urdinak omen zituen urgull Mendira joan zenetik. dirudienez, galtza Urdin berri batzuekin joan zen eta asko izerditu zuen. horrengatik omen ditu maitanek hankak urdinak orain!

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....